# Platica para la Dominica 17. despues de Pentec.

## Del amor de Dios.

Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et in tota anima tua, et in tota mente tua.

Amatuco dozu zeure Jaungoico Jauna zeure bi otz guztiaz, zeure anima guztiaz, eta ceure espi ritu guztiaz. S.n Math. 22. Cap.

Ynoz eztod arretatcen gure Evangelioen verba onen gañean, arritcen eznazana S.n Agustinegaz, guizonac, eztiriana eguiñac amatceco baño Jaun goicoa, pensatu daguien ain guchi amatcen beza, nola bear dirian obligatu mandamentu aguiri bategaz. Eta bear eran deiguben amatu daigun gueure aideac, gueure adisquideac, gueure defenso reac: emoten deuteguz gueure amodioa, ofrecitcen deuteguz gueure servicioac, eta aguertcen deutegu gueure esquerrac: eta bear eran deiguben ama tu daigun Criaturac: larregui amatcen dituguz, eta sarritan fuñiaz, eta zorazunaz. Posible da, ¡oh Jaungoico neurea, izan didilla bezoni baca rric bacarra ceñi beguiratcen deutzagun indife renciaz! Ecuia da, itantcen badeutzubet zubei guz tioi, amatcen dozuben Jaungoicoa, eztago bat ere, erantzungo eztabenic baietz. Personaric empe

naturenac munduban dire amatcen daubena Jaun goicoa. Deitunguitecen, bada, amodio equiarecoa pretendidutic, jurgatu daigun Jaungoicoac berac ematen deuscun erreguelatic: nic idoroten dot preceptoco verben explicacino sencilloan: Diliges Dominum Deum tuum: amatuco dozu ceure Jaungoico Jauna: ara emen obligacinoaren principalena, explicatuco dodana lecenengo puntuan: Ex toto corde tuo, et tota anima tua, et in tota mente tua. Amatuco dozube ceuben viotz guztitic, ceuben anima guztitic, eta ceuben espiritu guztiaz: ara emen moduba, cenegaz cumplitu bear dogun obligacino au, explicatuco dodana bigarrenean: preceptoa, eta Jaungoicoaren amodioen preceptoen practica. Au da explicatu gura dodan guztia izacunde onetan.

## Lecenengo Puntua.

Zuc amatuco dozu: au da aguintcen deuscuna Evangelioac: Diliges; baña cer da amatuco doguna, eta ce motivo gaitic? Ara emen iru verba onetan: Dominum Deum tuum. Amatuco dogu Jaungoicoa, cergaitic dan gure Jaun soberanoa, eta escatcen dau gugandic omenage au: Dominum. Amatuco dogu, cergaitic dan gure Jaungoicoa, gure lecenengo principioa, eta

guire azquenengo fina: Deum. Amatuco dogu, cer gaitic guza izan eben izan guztia gurea, eta videcoa da gu izan gaitecen guztioc bereac: tum. Au da mandamentu guztietatic leenengoa, eta andiena: Hoc est primum, et maximum mandatum.
1. Diliges Dominum. Amatuco dozu Jaungoicoa: Zor deutzagun culto, eta omenagea da gure amodioa. Bada Jaungoicoa dala gure Jaun soberanoa, eztau iñoc dudatcen; guztioc daquigu berezagaric daucagula izatea, eta vicia; dana gure gorputcen, gure animen, gure viotcen, gure ondasunen, eta gaxian guztien jabea, eta berari dagocola disponitcea gugaz demporaraco, eta eternidaderaco. Au suponituric, ¿ disputatu leigue amatceco obligacinoen ganean? ¡ Cer! Jaungoicoac amatcen gau eternidadetic, ; eta gu ucatuco deutzagu dogu gu amatcea demporan? Bere amodioac movitu eben gonburutcen bere fenefiçioaquin, ; eta guc ucatuco deutzagu gueure viotza? ¿ Ez litzateque izango au esquerbaguetasunic ichusiena, criminalena, eta sufritu ezina? ¡ Ah! Jaungoico neurea! Berorrec aguintcen deust amatcea, eta nic daucat neguea obedecitcen. ¿ Bear da aguintcea subdito bateri amatcea bere Erreguec, Seme bateri amatcea bere Aita, Esposa bateri amat

cea bere esposoa, eta criatura bateri bere Criadorea?
¿Eta berori nire Soberanoa, nire Aita, nire esposoa, eta nire Criadorea? ¿Bago munduban miseria andiagoric ez amatcea baño berori? Ah Christaubac! ¿pensatcen dogu ondo, izanic Jaungoicoa gure Jaun soberanoa, izan beandabena gure viotzen Erreguê? ¿pensatcen dogu artan ~~sarritan egun guztian~~ oracino eguitean, Meza entzutean, eta comulgatcen goacenian? ¿pensatcen dogu artan sarritan egun guztian? ¡Cembat Christauc irагoco daube urte guztia equin baga Jaungoicoen amodioen actu bat! Jauna bera da quexatcen dana bere profeta Jeremiasegandic. Dama bat eta artuten apainteen dan galaquin, eta bulargañean ifinten daben lepocoagaz; pensatuco dau aetan docena bat bider baño gueiago egunen cabuban, eta ala ere nire Pueblоac aastu nau dempora conta ezinian. Goazen bigarren motivora.

2. Diliges Dominum Deum tuum. Gueure Jaungoicoa da amatu bear doguna, da gueure leenengo principioa, eta gure azquenеco fina; beragandic urten dogu, eta beragana biurtu beardogu. ¡Oh guizona! deadar eguitendau Sn Agustinec, eguiцu gura dozun guztia, biurn zaitez gura dozun aldera, iñoz ez tozu idoroco descansuric Jaungoicoa

gan bacarric ezpada. eta ondo nire anaiac, ; sinistu
ten dozube equiaz: eztagoala ezer munduban satis
facituco zauena Jaungoicoa ezpada? ; eta ceñegana
beardogun unitu, badaucagu viotza zucena, diona
lequez Escriturea: Recti diligunt te? Ezrepartitu leig
guizonac iru clasetan: batzuc dagoz etzinic, beste
batzuc macurturic, eta beste batzuc dagoz zucen.
Etzinic dagocenac ~~dagocenac~~ dira arako becatariac
amatcen eztaubenac Jaungoicoa, eta eztiriarac ~~bere~~
bere bildur; macurtubac bildur dira, baña eztaube
amatcen; dauquenac viotza zucena dira bildur, eta
amatcen daube. Etzinic dagocenac dira arako becatari
ac, dagocenac sepultaduric becatuben loitzarunean, ara
co guizon infameac, eta vergiño baguecoac ezteuztenac
ezer antce ez infernubagaitic, ez Ceruagaitic. Dago
cenac macurturic dira arako Christiau erdiac, ya Jaun
goicoenac, ya mundubenac; bildur dira, baña eztaube
amatcen; cumplitcen daube euren obligacinoaquin,
gueiago Castiguubagaitic, Justiciaren amodioagaitic
baño. Zucen dagocenac dira arako guizon justoac,
billatcen daubenac Jaungoicoa Jaungoicoagaitic
beragaitic, arako guizon cabalac, gordetcen daube
nac bere legue santuba, eta sugetatcen diriarac
bere vorondatera. Equin bequi, Jauna, izan gai
tecen gu numero onetacoac. Criatura gustiac convi

datcen gaube antara, eta deadar equiten deucube, amatu bear doguna. Estaltcen cerubac, arqui equi ten deuscun Eguzquiac, gaucan ilunac, arnasa art cen dogun aireac, erreferescatcen daben urac, berot cen daben subac, Criatura guztiac, verba baten, esatendeuscube amatu daigun: baña ay! eurac verba equiten deuste gorrai, bandin berorrec, ô Jaungoico neurea, idiquiten espadeuste viotceco belarriac.
3. Diliges Dominum tuum. Bai, neure anaeac, Jaungoicoac irabastearren gure viotzac, emplea tu cituban medio genero guztiac, izanguindesqui an Vezeac: etzala contentu izates gure Criado ria, gura izan eben izatia gure Erredetoria: et zala contentu formatubaz gu bere escubaquin, atara gura izan guinduban Demonioenetatic. ¡Ah Jaungoico neurea! esatl daiquet nic euqui deuscun amodioa! Ycusi esazube emen nola Ai tac amatu gaben: ereucan seme bacar bat baño, eta eman deuscu, ala amatu guinduban. Eta Erre gue bacar bat, Principe andi bat amatu gabena, izanagaitic gu bere enemigoac, amodio generoso, eta chit andi bategaz. Amatu guinduban gue ontceraian miseriaz, eta becatuz beteric: amatu guinduban guecucanian arimac escuban, eta arra

vioa viotcean. Amatu gau, atcenez, emon artean
ez bacarric vicia, eta ondasunac, baita bere seme ba
carr eta propioa ere: Sic Deus dilexit, cum inimici
essemus, ut filium suum unigenitum daret. Eta emon
deuscun seme onec, ¿ nola amatu gau? Virgina
Santissimia, ecarri dabena berorren sabelian: Be
lengo estalpea, nun jaio dan: Zure adoragarria,
cenetan izandan josia gure amodioagaitic, esan
beigube. ipinico baguen balanza baten Querubin,
eta Serafin guztien amodioa, Apostolu guztiena, Mar
tiri, eta Bienaventuradu guztiena; amore onec
guztioc batera iñoz igualatu ecingo leuquie Jaungoi
coen Semenari, cansatu bearrean gu amatcen,
dirudi estaucala beste objetoric cer amatu, gu baño.
Onen ostean, ¿ ucatu deiguiogu gueure amodioa?
Da guztia gueure misericordiaz; izan gaitecen gu
guztiz bereac erguerragaitic. Yeuri dogu daucagun
obligacinoa amatceco Jaungoicoa; icusi daigun ora
in moduba, cenegaz amatu bear dogun.

Bigarren Puntua.

Au da, neure anaeac, gauza gaitz bat explicatceco; Cergai
tic gorde bear dogun neurria amatcen Jaungoicoa,
dadio S.r Bernardoc, amatcea neurri baga. Ala
ere, jarraitu daigun preceptoen verbac,
1. Diot, bear dogula amatu Jaungoicoa gueure

viotz gustitu, da esatea S.to Thomasen explicacino ari danez, bear dogula caminatu Jaungoicoagana geure vorondatien naraltasun gustiaz. Eguin one ec icusi eraguiten deusu cembat engañatzen di rian dividitcen diziana Jaungoicoen, eta mundo ben artean. Yracusten deuscu extituguta amatu bear Criaturac Jaungoicoagan, eta Jaungoicoarent zat espada; amatu bear dogula Jaungoicoa gauza gustiz gañean, geure aideac baño gueiago, gue re adisquideac baño gueiago, eta gu geurzoc baño gueiago. ¡O amodio (prefezenciacoa), edo leenengo coa! nola condenatuco dituzun egunen baten aimberte Christau, leenendu eubenac euren placeza euren obligacinoari! Nola condenatuco dituzun aimberte aita eta ama eguinic idolo bat euren semeaquin, eracarri eubenac asarre hã beza, nola berte dempora baten Heli sacerdote andiac! esan ebenian: Zu euqui ceben considera cino gueiago zeure semeendaco, nizetaco baño, bada guraago izan ceben sufritu ofenditu nen guien, ece ez asernetu. Ezcaitecen engañatu: Jaungoicoaren amodio eguiazcoa dago emote an Jaungoicoari leenengotasuna berte gusti en gañean, cumplitcen diziala fielguiro bere mandamentu santubac, geure haciendien, hon rien, eta vicien caltean ere. 2. In tota ani

ma tua. Esan gura dau: Beardogula amatu geure anima gustiaz. Jaungoicoac escatu gura izan eusçun geure moguimentubac, eta accino gustiac, escatubaz geure animea. Gura izan eusçun Jaungoicoac iracut ci verba oreg az zeuben anima gustiaz, dio S.to Thomasec, pasino naturaletaracoac, nola gosea, egarria, eta beste gustiac, zucendu bear diriala, Jaungoicoen amodioen errequetai darrez. Bearda alerda paitecen gagozena obligaturic amatcera Jaungoicoa geure gauza gustiaquin: in tota anima tua.

3. Atcenez amatu bear dogu geure entendimentu gustiaz: In tota mentu tua. Esan gura dau S.to Thomasec esplicatcen dabenez, gure entendimentubac egon beardabela gustiz sujeto Jaungoicoari. ¿Baña cer esango deustacube? estogu pensatu bear bestetan Jaungoicoagan baño? pensatu daiquezube zeuben familian, eta ceuben estadu bste edocein cereguinetan: Jaungoicoac estentzube eragosten pensamentu oreec; baña gura dau izan ditecen adrentubac zor deutzaben amodioza: gura dau zucendu deguiozuben gustiac berari, alaco moduban, ece berac bacarric euqui daguian zuben estimacino gustia.

Emen aguertcenda, Christaubac, entendimentu humanoen ichutasuna. Aurquituco balitza nor bait, dio S.n Agustinec, eguingo lenguiarena cam

queiago cidarraz, urriaz baño, gurtiac euquico leu quie zorotzat; eta zubec estimatcen dozube gueiago urria Jaungoicoa baño: ¡O ce ichutarun icaragarria! Principalmente encommendatcen deutzubedana, eta certan euqui bear dozuben ceuben atencino gurtia, da amatcen zeuben Jaungoico Jauna, eta unitu beragana divisino baga. Equingo bacitube ere ni lagzoac, eta mirariac, emongo bacenbe zeuben haci enda gurtia pobreai, onegaz gurtiaz ezpadaucazube ceuben viotcean Jaungoicoen amodioa, etzare ecer bere aoxean. Euqui eguizube gura dituzuben virtute gurtiac; gurtiac izango dira gaura ezac merecitceco ce nuba Caridadea baga, esaten deuscu S.n Agustin andiac. Deitzatei bidi gure viotza Criaturetatic ez amatceco Criadorea espada; Ah! Demporea da artceco beturte on bat onen gañean. Suscipe residuum anorum meorum; Ah Jauna; Berorregandic erreciuitu ditud merede, eta misericordia esan ecinac: ni esaut cen dot, eta emoten deutzat milla gracia: diñatu bidi erreciuitceen falta fatan urte laburroc, zucent ceco izago ditudanac amatu baga: Bai, banaz ere becatari miserablea, ofrecitcen deutrat emparadu rico neure vicia: ez begui ucatu. Ah Jauna! Nic emoten deutzat ondo guchi, cergaitic ez fat gueraz cen mentuzaz chit egun guchi baño vici izateco;

baña guerdatcen fatan guztia, consagratcen dot amat cera berori. Conferatcen dot nagoana lotzaz, eta con fusinoz beteric, presentatcen eztautzadalaco neure vicion exxerta miserable bat baño, ceñen fruteric onena arrapatu eiben andiguraac, gozamenac, munduben amodioac, eta criaturen itratciac; ba ña espera dot zucentcea penitenciagaitic, galdu dodana becatubagaitic.

Berandu nator berorregana, ¡ O Jaungoico neu rea! oh bondade, beti anchinacoa, eta betia barria, betetcen dabena embelesso gogaldez Aingueruben, eta San tuben viotza, ce berandu asiten nazan ni bero ri amatcen! Baña gura dot neure vicien garzartasunaz suplitu, neure egun laburrac cumplitu ecin dabena. ni nua amatcen bero ri neure viotz guztiaz, neure anima guztiac, eta neure entendimentu guztiaz; amatuco dot beste gauza guztiac baño gueiago: amatuco dot divisino baga; amatuco dot firmemente vici onetan, arrengoaz amatceco Santu baquin eternidade guztian. Amen.

FUNDACION
SANCHO EL SABIO

MAN 704